

## 2013-2014 IKASTURTEA

### **ARDURADUNAK: URDANETA IKASTETXEA, ZUHAIZTI ZENTROA**

#### **PARTAIDEAK:**

Urdanetako ikastetxeko eskola-prentsa eta telebista erreportariak eta Zuhaitziko ekintza-taldeak.

**Nori zuzentzen zaio:** Partaide guztientzako eta Urdanetako ikasleentzako /LHkoak)

**Hartzailearen adina:** Haurrak, helduak eta nagusiak.

**DATA:** 2014ko otsailaren 14an, maiatzaren 12an eta ekainaren 9an.

#### **HELBURUAK:**

- Jubilatuek gaurko ikastetxeak eta ikasleek eguneko zentroa ezagutzea; zer egiten den, nola eta baloratzea.
- Belaunaldien arteko ezagutza, ulermena eta errespetua lantzea.
- Teknologi berriak erabiliz, gure Herriko Historia jasotzea.
- Norbere zaletasunak besteekin konpartitzea.
- Elkar hobeto ezagutzea.
- Informatika zaletasuna lantzea eta partekatzea.
- Eskolan egiten den komunikazio eta informazio lanari dimentsio berri bat eskaintzea.

#### **EKINTZAREN DESKRIBAPENA/ AZALPENA:**

Urdaneta ikastetxeko 3.zikloko ikasleek, jubilatuen zentroa 2 egun ezberdinetan bisitatzen dute. Egun horietan, ikasleek, Zuhaitziko ekintza-talde ezberdinak elkarriketatu eta bertako instalakuntzak ezagutzen dituzte.

Honela, lehenengo egunean, Javier Barandiaran etxeko arduradunarekin instalazio guztiak ikusten dituzte eta argazkiak eta bideo- kamerarekin grabazioak egiten dira Jubilatuen Egoitza hobeto ezagutzeko.

Bigarren egunean, Ekintzen batzar-kideen bilera eta egoitzan egiten diren ikastaroak bisitatzen dituzte: Pilates, Abesbatza, Billar eta Xake ikastaroak ikastaroak. Etxean argazkiak, elkarriketak eta bideoak egiteko aprobeztatzen dute.

Zuhaitzi Elkarteko jubilatuek, Urdaneta ikastetxera joaten dira bertako instalakuntzak bisitatu eta ikasleekin belaunaldien arteko ezberdintasunez hitz egiteko. Honela, gai ezberdinak jorratzen dira: gerra garaia, lan harremanak edo bizi ohiturak. Horretarako ikasleek, hainbat partaide elkarriketatzen dituzte eskolako irrati eta telebista saioaz baliatuz.

Azkenik, jubilatuekin trukaturako informazio guztiarekin, ikasleek eskolako aldizkaria osatzen dute eta jasotako materialarekin egindako erreportajea eta aldizkaria Urdanetako web orrian zintzilikatzen da,

#### **BALIABIDEAK:**

Giza baliabideak: Ikastetxeko eskola-prentsa eta telebista erreportariak eta Zuhaitziko ekintza-taldeak.

Materialak (zabalpenerako): Urdaneta barneko telebista programarako, grabaketa tresnak.

**BALORAZIOA:**

Ekintza hau proiektu zabalago batean txertatzea planteatu zen iaz hobekuntza moduan, alde batetik, ikasleek jubilatuen zentroa bere osotasunean ezagutzeko aukera izateko eta beste aldetik, zahartzaroari buruz dauden estereotipoak haustea eta elkar partekatzeko guneak ere sortzeko.

Honela, Urdanetako ikasleek Zuhaiztiko hainbat ekintza-talde eta zuzendaritza elkarrizketatu dituzte, eta jasotako materiala guztiarekin zentroari buruzko erreportajea eta artikulu ezberdinak osatu dira. Ondoren, ikastetxeko barne sarearen bitartez sortutako lanak zentroan zabaldu eta ikastetxeko web orrian ikusgai jarri dira, eta, zuhaiztiko hainbat jubilatuk ikastetxera eginiko bisita irrati-telebista erreportaje bidez jaso da.

Esperientzia oso ona izan da eta argi dago ekintza kualitatiboki osatu dela.

**HOBKUNTZA PROPOSAMENAK:**

Hurrengo urteari begira, ekintzaren eragileen artean izandako koordinazio bileran (uztailak 15) proiektu berarekin haratago joatea adostu da.

Honela, sortutako material guztiarekin Blog bat egitea proposatu da, gaiari koherentzia emateko eta, aldi berean, gelditzen diren ekintza-taldeak ere elkarrizketatzeko.

Gainera, elkarrizketak egiteaz gain, hainbat tailerretan ikasleek eta jubilatuek batera parte hartzea adostu da, esperientzia eta elkar ezagutza partekatzeko.

## 2014-2015 IKASTURTEA



### ARDURADUNAK: URDANETA IKASTETXEA, ZUHAIZTI ZENTROA

#### PARTAIDEAK:

Partaideen kopurua: \_\_\_ Gizonezkoak % \_\_\_ Emakumezkoak % \_\_\_  
Hartzailearen adina: Haurrak(0-12) Nerabeak(13-18) Gazteak( 19-40)  
Helduak(40-60) Nagusiak(+60)

**DATA:** Iraila

#### HELBURUAK:

- Jubilatuek gaurko ikastetxeak eta ikasleek eguneko zentroa ezagutzea.
- Belaunaldien arteko ezagutza, ulermena eta errespetua lantzea
- Teknologiak berriak erabiliz, gure herriko historia
- Norbere zaletasunak besteekin konpartitzea
- Elkar hobeto ezagutzea
- Informatika zaletasuna partekatzea Eskolan egiten den komunikazio eta informazio lanari dimentsio berri bat eskaintzea .
- Gure hedabideetan egindako elkarrizketaz baliatuz zenbait balore landu.

#### EKINTZAREN DESKRIKAPENA/ AZALPENA:

Irailean zuhaitzi Elkarteko jubilatutako talde bat Urdaneta eskolan egon zen. Eskola eta hedabideak ezagutu ondoren, eskolako telebistaioan parte hartu zuten, besteak beste, belaunaldien arteko ezberdintasunez hitz egiteko. Beraien iritziak, bizipenak, zaletasunak, lan harremanak, beren garaiko eskola, etxeak, herria, bizi ohiturak, jokoak eta abar gure ikasleekin konpartitu zuten.

2. eta 3. zikloko ikasle guztiek geletatik telebistaioa ikusteko, komentatzeko eta lantzeko aukera izan zuten.

Ondoren Prentsako arduradunek elkarrizketa bat egin zieten eta eskolako egunkarian argitaratu zuten. Honez gain, Txikiweben bideoa editatu zuten eskolako webgunean ikusi ahal izateko.

#### BALORAZIOA:

Helburuak lortu direla uste dugu, taldeen satisfazio maila oso ona izan da. Bisitaren dokumentazio grafikoa Urdaneta Ikastetxearen Txiki webean jasotzeko beste momentu batzuetan lantzeko aukera ematen du.

Ekintza hau oso aberatsa da eta aurrera eramaten jarraitu behar dugu.  
Gure Urteko Planean jasotzen da urtero eta sistematizatu egin dugu.

**HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK:**

**OHARRAK**

